



ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO PARTAIDETZAKO AURREKONTUAK EGITEKO PARTAIDETZA EREDUAREN GIDA PRAKTIKOA

1.- GIDAREN AURKEZPENA

2.- ARABAKO PARTAIDETZAKO AURREKONTUEN HELBURUA ETA XEDEA

3.- PARTAIDETZAKO AURREKONTUAREN FASEAK

3.1. 1. FASEA: PLANGINTZA ETA ZABALKUNDEA

- a) Beharrezko aurrekontu partida zehaztea
- b) Egutegia egitea
- c) Zabalkundea eta komunikazioa

3.2. 2. FASEA: HERRITARREN PROPOSAMENAK JASOTZEA

- a) Parte hartzeko baldintzak
- b) Proposamenei buruzko baldintzak
- c) Proposamenak aurkezteko bideak
 - 1) Bide elektronikoa
 - 2) Bide presentziala

3.3. 3. FASEA: HERRITARREN PROPOSAMENAK AZTERTZEA

- a) Proposamenak egiaztatzea eta iragaztea
- b) Kategoria bakoitzean hauta daitezkeen proiektuen zerrendak egitea
- c) Egiaztapen irizpideak
- d) Kategoria bakoitzean hauta daitezkeen proiektuak argitaratzea.

3.4. 4. FASEA: PROPOSAMENAK HAUTATZEA HERRI BOZKETA

- a) Proposamen bakoitzaren publizitatea
- b) Herri bozketan parte hartzeko baldintzak
- c) Bozketak egitea
 - 1) Bide elektronikoa
 - 2) Bide presentziala

3.5. 5. FASEA: BOZKETAREN AZKEN EMAITZAK ETA JARRAIPENA

- a) Bozketaren azken emaitzak
- b) 1. KATEGORIA: Bozketen haztapena
- c) 2. KATEGORIA: Gutxieneko quoruma
- d) Aurrekontu esleipena
- e) Jarraipena
- f) Gauzatzeko gerora sortutako ezintasuna

3.6. 6. FASEA: HERRITARREI ITZULTZEKO PROZEDURA

3.7. 7. FASEA: EBALUAZIOA ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK



1.- GIDAREN AURKEZPENA

Gida praktikoa honen helburua da Arabako partaidetzako aurrekontuen oinarriak eta alderdirik garrantzitsuenak modu labur eta errazean azaltzea. Partaidetzako demokraziaren tresna da, zuzenekoa eta eztabaidazkoa, eta, horri esker, herritarrek parte har dezakete politika publikoen diseinuan, erabakian, betearazpenean eta jarraipenean.

Gidak prozedurazko gaiak jasotzen ditu, hala nola proposamenak nola eta non aurkeztu, nolako proposamenak onartuko diren eta zeintzuk geratuko diren kanpoan eta zergatik, baita proposamenak aurkezteko edo bozkatzeko eskatzen diren betekizunei buruzko beste alderdi batzuk ere, prozesuaren faseen azalpen labur batez gain.

2.- ARABAKO PARTAIDETZAKO AURREKONTUEN HELBURUA ETA XEDEA

Arabako partaidetzako aurrekontuen helburua da, batetik, lurraldeak eta bertako kuadrillek dituzten behar eta lehentasunak zehaztean arabarrek **zuzenean parte hartzea**, eta, bestetik, Foru Aldundiaren urteko aurrekontuan **gizartearen babes handiena duten beharrak** sartzeari eta **lortutako konpromisoen jarraipena** egitea.

Hausnarketa aktiboa eta elkartasuna sustatzen lagundu nahi da. Izan ere, lurraldeko kuadrilletako udalerriren batean erroldatuta dauden 16 urtetik gorako arabar guztiek aukera izango dute beharizan kolektiboetan sakontzeko eta gainerako herritarrek planteatzen dituzten arazoak eta eskaerak ezagutzeko.

Hori dela eta, tresna hori ez da soilik partaidetzako berrikuntza tresna bat, baizik eta herritarrek lurraldean gertatzen denaren behatzaile huts izatetik **protagonista aktibo** izatera igarotzeko gunea; kudeaketa publikorako funtsezko pieza da.

Gainera, partaidetzako aurrekontuak, “zertan gastatzen ditu administrazioak gure zergak?” galderari erantzuteko kontuak ematearen oinarri nagusia ardatz hartuta, **kudeaketaren gardentasunerako dinamika aktibo** gisa jarduten dute.

Prozesua irekita egongo da Arabako Lurralde Historikoko bizilagunek proposamenak aurkezteko, eta 7 fasetan banatuta egongo da:

- 1. fasea: Plangintza eta zabalkundea
- 2. fasea: Herritarren proposamenak jasotzea
- 3. fasea: Herritarren proposamenak aztertzea
- 4. fasea: Proposamenak hautatzea eta herri bozketa
- 5. fasea: Bozketaren azken emaitzak eta jarraipena
- 6. fasea: Herritarrei itzultzeko prozedura
- 7. fasea: Ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak



3.- PARTAIDETZAKO AURREKONTUAREN FASEAK

3.1. 1. FASEA: PLANGINTZA ETA ZABALKUNDEA

Lehen fasea funtsezkoa da partaidetzako aurrekontuen zikloan; batez ere, partaidetzako aurrekontuak gauzatzeko beharrezkoa den **partida zehaztean**, prozesuan jarraituko den **egutegia finkatzean** eta **partaidetza prozesua zabaldu eta jakinaraztean** datza, prozesu horren berri emateko eta herritarrak parte hartzera animatzeko.

a) Beharrezko aurrekontu partida zehaztea

Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuetan urtero aurreikusiko da zein zenbateko bideratuko den Arabako partaidetzako aurrekontuen prozesura.

Ekitaldi bakoitzerako, diru sarreraren aurrekontu osoaren eta Arabako Foru Aldundiarenak ez diren gastuen arteko proposamen aritmetikotik ateratzen den **aurrekontu propioaren % 0,45** esleituko da. Hori foru aurrekontuak behin betiko onestearen mende egongo da, **I. eranskinean** jasotzen den bezala.

Prozesuan hautatutako proiektuak gauzatzeko aurreikusitako gastuen partida, azkenean, proposamen bakoitza egiteko eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailari esleituko zaio.

Gastuen partida bi zatitan banatuko da:

- A. Arabako partaidetzako aurrekontuen prozesura bideratutako zenbatekoaren % 35 **2.000 biztanletik gorako udalerrietarako** aurkeztutako proiektuei esleituko zaie (**1. KATEGORIA**), EUSTATen azken txostenaren arabera, partaidetza prozesuaren deialdia ALHAOn argitaratzen den egunean.

Zenbateko hori **2 proiektu egiteko** erabiliko da.

Jasotako proposamenei dagozkien aurrekontuen arabera, azkenean hautatutako proiektuen kopurua handitu ahal izango da.

- B. Arabako partaidetzako aurrekontuen prozesura bideratutako zenbatekoaren % 65 **2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietarako** aurkeztutako proiektuei esleituko zaie (**2. KATEGORIA**), EUSTATen azken txostenaren arabera, partaidetza prozesuaren deialdia ALHAOn argitaratzen den egunean.

Zenbateko hori **6 proiektu egiteko** erabiliko da.

Zenbateko hori 6 zenbateko berdinetan zatituko da, kuadrilla bakoitzeko bat (Gasteiz izan ezik).



2. KATEGORIA honetan kuadrillaren batean ez badago partaidetza prozesuan sartzen den proiekturik, kuadrilla horri dagokion zenbateko ekonomikoa zuzkidura osagarri gisa banatuko da, beste kuadrilletako gainerako proiektuen proportzioan.

Jasotako proposamenei dagozkien aurrekontuen arabera, azkenean hautatutako proiektuen kopurua handitu ahal izango da, esleitutako aurrekontua agortu arte.

Era berean, bi kategoria horietako edozeinetan, partaidetza prozesuaren azken proiektuak zehaztu ondoren, azkenean proiektuei esleitu gabeko aurrekontu erabilgarririk balego, Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak baimena eman ahal izango du bi kategorien arteko aurrekontua egokitzeko, Partaidetzako Aurrekontuen aurrekontu partida agortze aldera.

b) Egutegia egitea

Urtero, **Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko diputatuaren foru agindu bidez**, egutegi bat onetsiko da, fase bakoitzari dagozkion datak eta epeak jasoko dituena. **Egutegi hori Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko da.**

c) Zabalkundea eta komunikazioa

Gida praktikoa hau eta urtero onesten den egutegia **Gobernu Irekiaren Atariaren** bidez egongo dira eskuragarri herritarrentzat.

Web atari horretan ez ezik, ohiko kanal eta sare sozialen bidez ere iragarri eta zabalduko da prozesua.

3.2. 2. FASEA: HERRITARREN PROPOSAMENAK JASOTZEA

Bigarren fasean, parte hartzaileek egindako proposamenak jasoko dira.

a) Parte hartzeko baldintzak

Parte hartzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

1) Pertsona fisikoak:

- 16 urte edo gehiago izatea
- Arabako Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta egotea.

2) Nortasun juridikoa duten entitateak (elkarteak edo taldeak)

Elkarteek edo taldeek baldintza hauetakoren bat bete beharko dute:

- Arabako Lurralde Historikoan eratuta egotea edo
- Araba izatea lan eremutat.

Kasu horretan, entitatea ordezkatzeko duen eskatzaileak Arabako Lurralde Historikoko edozein udalerritan erroldatuta egon beharko du, eta 16 urte edo gehiago izan beharko ditu.



b) Proposamenei buruzko baldintzak

Proposamenek ez dute deskribapen tekniko konplexurik egin behar, baina eranskinetan nahitaez eskatzen den informazioari gehitzen zaion informazio osagarri orok erraztu egingo du Arabako Foru Aldundiak proiektua aztertzea (gutxi gorabeherako aurrekontua, memoria teknikoa, garrantzi soziala...).

Proposamenek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- **Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeetan eta toki erakundeentzat proiektuak planteatzea (Gasteizko Kuadrilla izan ezik, ez baita onuraduna).**
- **Garrantzitsuak eta interes orokorrekoak eta onura publikokoak izatea.**
- Legezko egitatea izatea eta **difamatzailea edo diskriminatzailea ez izatea.**
- Parte hartzeko prozesuan hautatuak izanez gero, proposamenak gauzatu ahal izango dituzte bai Foru Aldundiak, bai proposamenaren xedearen ardura duen Arabako Lurralde Historikoko toki-erakundeak, azken kasu horretan, betiere haren adostasuna badago.
- **Zehatzak** izatea, proiektuaren **xedea eta helburua** argi utzita.
- Haren **bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa** bermatzea, eta **inola ere ez ekartzea gastua handitzea** Arabako foru administrazioak edo haren foru sektore publikoak aldeztu aurretik garatu dituen ekimenetan.
- Proiektuak beste administrazio batzuen laguntza edo dirulaguntzaren bat jasotzen badu, jasotako zenbatekoen baturak ezin izango du gastuaren % 100 gainditu.
- Arabako Foru Aldundiak eta bere foru sektore publikoak **mantentzeko beharrik ez izatea** gerora.
- Epe ertainean edo luzean egingo diren era askotako aldaketen aurrean **Arabak erantzuteko eta egokitzeko duen gaitasuna areagotuko duten proposamenak** izatea.
- **1. KATEGORIAREN** kasuan, UDALERRI onuradunek **ezin izango dute** Arabako Foru Aldundiaren partaidetzako aurrekontuaren **hurrengo bi urteko deialdietan parte hartu.**

c) Proposamenak aurkezteko bideak

Herritarren proposamenak jasotzeko aldi bat irekiko da, bai 1. KATEGORIARAKO, bai 2. KATEGORIARAKO. Horretarako, kategorien arabera bereizitako inprimakiak aurkeztu beharko dira eta horiek aurkezteko bi bide izango dira:

1) Bide elektronikoa:

Online inprimaki bat beteko da, KATEGORIAREN arabera bereizita, **araba.irekia.eus** web orriaren bidez; "parte hartzea" atalean, edo **AFAREN egoitza elektronikoen bidez**. Bide hori erabili behar dute, nahitaez, pertsona juridikoek eta Administrazioarekiko harremanak elektronikoki izatera behartuta daudenean, bat etorritik Administrazio Publikoen



Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua xedatutakoarekin.

Dagokion inprimakiak eskatzaileari eta aurkeztutako proiektuari buruzko informazioa jasoko du.

2) Bide presentziala:

Horretarako prestatutako inprimakia beteko da (**II. ERANSKINA: 1. KATEGORIAKO proposamena** edo **III. ERANSKINA: 2. KATEGORIAKO proposamena**) eta **Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorren Bulegoan** aurkeztuko da, **Gasteizen, Laudion edo Guardian**, edo **Arabako Lurralde Historikoko edozein udalerritako sarrera erregistroaren bidez**. Dagokion inprimakiak eskatzaileari eta aurkeztutako proiektuari buruzko informazioa jasoko du.

3.3. 3. FASEA: HERRITARREN PROPOSAMENAK AZTERTZEA

a) Proposamenak egiaztatzea eta iragaztea

Ezarritako epean aurkeztutako proposamen guztiak bildu ondoren, Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak aurkeztutako proposamenak egiaztatu eta iragazteko ardura izango du, **3.2 puntuko "b" apartatuan definitutako BALDINTZETAN** zehaztutako ezaugarriak kontuan hartuta.

Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritza harremanetan jarri ahal izango da proposamena egin duten pertsona edo entitateekin, informazio gehiago biltzeko edo egon daitezkeen zalantzak argitzeko.

Foru teknikariek baldintzak betetzen diren aztertuko dute, eta, azkenean, Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak proposamen guztien zerrenda egingo du —2. KATEGORIARAKO 3.2 puntuko "b" apartatuan zehaztutako BALDINTZAK bete dituzten foru sailen arabera sailkatuta—. Zerrenda horiek osatuko dute KATEGORIA bakoitzean hauta daitezkeen proiektuen proposamena, eta **Gobernu Irekiaren Atariaren webgunean argitaratuko da (araba.irekia.eus)**.

b) KATEGORIA bakoitzean hauta daitezkeen proiektuen zerrendak egitea

KATEGORIA bakoitzeko egiaztapen teknikoaren izapidea gainditu duten proiektuei buruzko informazioa dagokion arloan eskumena duten foru sailalara bideratuko da, bildutako herritarren proposamen bakoitzaren balorazio teknikoa/ekonomikoa egin dadin, eta, horrela, proiektuen hautagarritasuna zehaztuko da.



Azterketa horren emaitzatik zehaztuko dira **KATEGORIA bakoitzean hauta daitezkeen proiektuen zerrendak, eta herritarrek bozkatzeko hurrengo fasera igaroko dira.**

KATEGORIA bakoitzean esleitutako zenbatekoa baino aurrekontu handiagoak dituzten proiektuen kasuan, azkenean hautagarria izan dadin, azken zenbatekoa partaidetzako aurrekontuei dagokien aurrekontu partidan onartutako zenbatekora egokitu beharko da.

c) Egiaztapen irizpideak

1. KATEGORIARAKO zein 2. KATEGORIARAKO, proiektuen bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa egiaztatzeko foru sailek erabiliko dituzten irizpideak honako hauek dira:

- Bere garaian indarrean zegoen Arabako Foru Aldundiaren plan estrategikoan ezarritako helburuekin bat etortzea.
- Lurraldearen estrategiarekin eta aukera irizpideekin bat etortzea.
- Kasu bakoitzean aurrekontua egokitzea, proiektua zein KATEGORIATAN kokatzen den kontuan hartuta.

Proiektuaren bideragarritasuna aztertzen ari diren sailak harremanetan jarri ahal izango dira proposamena egin duten pertsona edo entitateekin, informazio gehiago biltzeko edo egon daitezkeen zalantzak argitzeko.

d) KATEGORIA bakoitzean hauta daitezkeen proiektuak argitaratzea

KATEGORIA bakoitzean hauta daitezkeen proiektuen zerrenda Gobernu Irekiaren Atariaren webgunean argitaratuko da (araba.irekia.eus), Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailaren foru aginduan urtero zehazten den egunean; bertan zehaztuko da partaidetza prozesu bakoitzari dagokion egutegia.



3.4. 4. FASEA: PROPOSAMENAK HAUTATZEA HERRI BOZKETA

Hauta daitezkeen proiektuen zerrenda argitaratu ondoren, herritarrek bozketa egin dezaten, bozketa egiteko epea irekiko da.

a) Proposamen bakoitzaren publizitatea

Hainbat bitartekoren bidez argitaratuko da hauta daitezkeen proiektu bakoitzari buruzko informazioa, ZEHAZTUTAKO 2 KATEGORIEI dagokienez:

- **1. KATEGORIA (2.000 biztanletik gorako udalerrietan hauta daitezkeen proiektuak)**
 - 1) Jarduketa zein udalerritan gauzatuko litzatekeen
 - 2) Izenburua
 - 3) Deskribapena/Xedea
 - 4) Aurrekontu zenbatetsia (eskuragai balego)
 - 5) Proposamena egin duen pertsonaren (anonimotasuna gordez) edo entitatearen datu orokorrak

- **2. KATEGORIA (2.000 biztanletik beherako udalerrietan hauta daitezkeen proiektuak)**
 - 1) Jarduketa zein kuadrilla eta udalerritan gauzatuko litzatekeen
 - 2) Izenburua
 - 3) Deskribapena/Xedea
 - 4) Aurrekontu zenbatetsia (eskuragai balego)
 - 5) Proposamena egin duen pertsonaren (anonimotasuna gordez) edo entitatearen datu orokorrak

b) Herri bozketan parte hartzeko baldintzak

Erabiltzen den kanala edozein dela ere, pertsona bakoitzak 2 kategorietan proposatutako proiektu bati bakarrik eman ahal izango dio botoa, hau da, ezin izango zaio bozkatu 1. kategoriako bati eta 2. kategoriako beste bati. Boto bat baino gehiago eman ez gero, baliogabetzat joko dira.

- **1. KATEGORIA (2.000 biztanletik gorako udalerrietan hauta daitezkeen proiektuak)**

Hautatua izateko proiekturen bat proposatu den **UDALERRIAN** erroldatuta dauden 16 urtetik gorako pertsonak.

- **2. KATEGORIA (2.000 biztanletik beherako udalerrietan hauta daitezkeen proiektuak)**

Hautatua izateko proiekturen bat proposatu den **KUADRILLAN** erroldatuta dauden 16 urtetik gorako pertsonak.



c) Bozketak egitea

Partaidetza prozesu horretan botoa emateko eskubidea erabiltzerakoan, botoa ematen duenak nahitaez eman beharko ditu Arabako Lurralde Historikoko zein udalerritan erroldatuta dagoen egiaztatzeko behar diren datuak.

Parte hartzaileek **proiektu bakar baten** alde bozkatu ahal izango dute, bai 2. KATEGORIAren kasuan, bere KUADRILLARAKO proiektu baterako, bai bere UDALERRIRAKO proiektu baterako, 2.000 biztanletik gorako udalerrietan erroldatutako pertsonen kasuan.

Herri bozketarako aldi bat izango da. Bozkatzeko inprimakiak aurkeztu beharko dira eta horiek aurkezteko bi bide izango dira:

1) Bide elektronikoa:

Online inprimaki bat beteko da, **KATEGORIAren arabera bereizita, araba.irekia.eus web orriaren** bidez; "parte hartzea" atalean, **edo AFaren egoitza elektronikoen bidez**. Bide hori erabili behar dute, nahitaez, pertsona juridikoek eta Administrazioarekiko harremanak elektronikoki izatera behartuta daudenek, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua xedatutakoarekin.

KATEGORIA bakoitzeko online inprimakiak eskatzaileari eta hautatutako proiektuari buruzko informazioa jasoko du, eta **bi kategorietako batean bakarrik eman ahal izango da botoa**.

2) Bide presentziala:

Horretarako prestatutako inprimakia beteko da **(IV. ERANSKINA: 1. KATEGORIAKO bozketa** edo **V. ERANSKINA: 2. KATEGORIAKO bozketa)** eta **Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorraren Bulegoan** aurkeztuko da, Gasteizen, Laudion edo Guardian, edo **Arabako Lurralde Historikoko edozein udalerritako sarrera erregistroaren** bidez.

KATEGORIA bakoitzeko inprimakiak eskatzaileari eta hautatutako proiektuari buruzko informazioa jasoko du, eta **bi kategorietako batean bakarrik eman ahal izango da botoa**.

Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak, NISAren datuen bidez, botoa eman duten pertsonen emandako errolda datuen egiazkotasuna egiaztatuko du.



3.5 5. FASEA: BOZKETAREN AZKEN EMAITZAK ETA JARRAIPENA

a) Bozketaren azken emaitzak

Arabako Foru Aldundiak, bozketa aldia amaitutakoan, proiekturik bozkatuenen zerrenda bat egingo du KATEGORIA bakoitzeko (boto kopuru handienetik txikienera).

A. 2.000 biztanletik gorako udalerrietan garatutako proiektuak Jaso duten **BOTO HAZTATUEN** kopuruaren arabera sailkatuta.

B. 2.000 biztanletik beherako udalerrietan garatutako proiektuak KUADRILLAREN eta jaso duten BOTO kopuruaren arabera sailkatuta.

b) 1. KATEGORIA: Bozketen haztapena

Proposamena hautatu ahal izateko, proposamen bakoitzak gutxienez jaso behar duen boto kopurua DAGOKION UDALERRIAN ERROLDATUTAKO **20 URTEK GORAKO BIZTANLEEN % 5**ekoa izan behar da.

Herri bozketaren fasean udalerrri handienetarako proposamena aukeratua izateko aukera orekatzeko, **bozketak dagokion udalerriko biztanleen ratioaren arabera haztatuko dira, biztanle gehien dituen Arabako udalerrian erroldatutako biztanleekiko** (Gasteiz alde batera utzita), KATEGORIA honi dagokionez (2.000 biztanle baino gehiago).

Hona hemen TAULA bat, boto haztatuaren emaitzarekin eta Laudioko udalerriko 1.000 botoekiko baliokidetasun zerrendarekin:

UDALERRIA	20 URTEK GORAKO BIZTANLEAK	BOTO HAZTATUA	BOTOEN BALIOKIDETASUNA (ADIBIDEA)
Laudio	15.155	1,00	1.000
Amurrio	8.421	1,80	556
Agurain	4.125	3,67	272
Iruña Oka	3.016	5,02	199
Oion	2.816	5,38	186
Dulantzi	2.451	6,18	162
Aiara	2.300	6,59	152
Zuia	2.041	7,43	135
Legutio	1.708	8,87	113



c) 2. KATEGORIA: Gutxieneko quoruma

Dagokion **KUADRILLAN** erroldatutako **20 urtetik gorako biztanleen % 2ko gutxieneko partaidetza quoruma** ezartzen da, EUSTATEk hura osatzen duten udalerrien datuetan oinarrituta, **2.000 biztanletik gorako udalerriak alde batera utzita**.

KUADRILLAKO GUTXIENKO QUORUMA (EUSTATEn datuen arabera, 2025/01/01ean)

KUADRILLA	20 urtetik gorako BIZTANLEAK	2000 biztanletik gorako udalerriak	20 urtetik gorako BIZTANLEAK	GUZTIRA	QUORUMA (% 2)
AÑANA	8.466	Iruña Oka	3.016	5.450	109
AIARALDEA	28.346	Laudio; Amurrio; Aiara	25.876	2.470	49
LAUTADA	10.568	Agurain; Dulantzi	6.576	3.992	80
ARABAKO ERRIOKA	9.624	Oion	2.816	6.808	136
GORBEIALDEA	8.504	Zuia; Legutio	3.749	4.755	95
MENDIALDEA	2.771	-		2.771	55

d) Aurrekontu esleipena

Kuadrilla bakoitzean boto gehien jasotzen duten proiektuak Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzari esleitutako aurrekontu lerroan gordetako gastu partidaren kontura gauzatuko dira, eta partaidetza prozesuaren azken proiektuen zerrenda osatuko da.

e) Jarraipena

Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritza arduratuko da azken proiektuen gauzatzearen jarraipena egiteaz eta haiek ebaluatzeaz eta justifikatzeaz, prozesua ibilbide zirkularra izan dadin, eta, bertan, herritarrek, proiektuaren subjektu nagusi gisa, Arabako partaidetzako aurrekontu horiei buruzko informazio xehatua izan dezaten beti.

f) Gauzatzeko gerora sortutako ezintasuna

Aurrekontuan sartuta dauden proposamenak gauzatu aurretik, gainerako aurrekontu partidekin gertatzen den bezala, kontrol eta azterketa gehigarri guztiak egingo dira.

Aurrekontuaren proiektuan sartu aurretik alde aurreko azterketa egin bada ere, azken izapidean azterketa gehigarriak burutu daitezke, eta horiek, aurrez detektatu gabeko oztopoak aurkitu, eta proiektu jakin batzuk egitea guztiz edo zati batean eragotzi dezakete.

Hala balitz, informazio hori Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Irekiaren Atarian (araba.irekia.eus) argitaratuko da.



3.6 6. FASEA: HERRITARREI ITZULTZEKO PROZEDURA

Arabako Foru Aldundiak partaidetza prozesu horren faseren batean (proiektuen proposamena) parte hartu duten pertsona/entitate guztiei itzultzeko prozesu bat gauzatu du, Arabako partaidetzako aurrekontuen trazabilitatea bermatuko duen itzulera bat gauzatzeko eta gardentasunaren eremuan prozesuaren bermearen aldeko apustua egiteko.

Partaidetzako aurrekontuei buruzko informazio guztia Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Irekiaren Atariaren (araba.irekia.eus) webgunean egongo da eskuragarri.

3.7 7. FASEA: EBALUAZIOA ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Zikloari amaiera emateko, prozesuaren ebaluazioa egingo da, eta ekintza zuzentzaileak eta hobetzeko proposamenak identifikatuko dira, hurrengo edizioetan ezartzeari begira.

Emaitzak **amaierako memoria** batean jasoko dira, eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Irekiaren Atarian (araba.irekia.eus) argitaratuko da.



I. ERANSKINA

Proposamen aritmetikoa:

(1)	Diru sarreraren aurrekontua, guztira
	Era berean, ahalmen propioari eragiten ez dioten gastuak kentzen dira. redundan en capacidad propia Konpromiso instituzionalak (EJ + Estatua) TEFFF Foru plana Foru plana - zuzkidura osagarria Obra txikiak egiteko laguntzak Auzoko harremanak Udalen partaidetza. Tributu itundugabeak Batzar Nagusietako zuzkidura Instituten transferentziak Zorpetzearen finantza karga Eraginpeko finantzaketa duten gastuak AFAREN 1. kapitulua Gizarte zerbitzuen zorroa
(2)	Propioak ez diren gastuak, guztira
(3) = (1) - (2)	Aurrekontu propioa
	eta aurrekontu propioari honako hau aplikatzen zaio:
(4) = % 0,45* (3)	Partaidetzako aurrekontuen funtsa